# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-3459

AGINDUA, 1999ko uztailaren 16koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan Urrutiko Batxilergoa arautzen da.

Autonomi Estatutuaren 16. artikuluak xedatzen duenaren arabera, irakaskuntza bere zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena da, Konstituzioaren 27. artikuluaren eta berori zehaztuko duten Lege Organikoei, haren 149-1-30. artikuluak Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta hori betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspekzioari kalterik egiteke.

Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Hezkuntza-sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzkoak, jasotzen dituen irakaskuntzak pixkanaka ezartzearen ondorioz eta Hezkuntza-sistemaren antolamendu berriaren eraginez, Batxilergo Bateratu Balioanitza eta Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea iraungi egingo dira eta Euskal Autonomia Erkidegoan Urrutiko Batxilergoa berregituratu eta berrantolatu egin beharko da.

Beharrezkoa da Urrutiko Batxilergoa ikasten duten ikasleen matrikulazio-baldintzak eta ikasturtez igarotzeko baldintzak ezartzea eta, halaber, irakaskuntza horiek emateko modua, irakasleen lan-baldintzak nahiz ikastetxe horien aginte-organoak finkatzea.

Institutu horien Ordezkaritza Organo Gorena osatzerakoan, Administrazioak ezaugarri bereziak dituzten ikastetxeetan OOGaren osaera ezaugarri horietara moldatzeko duen ahalmena kontuan hartu da. Ahalmen hori otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, euskal eskola publikoari buruzkoak, 32.3 artikuluan ematen dio Administrazioari.

Azkenik, xedapen iragankorrean urrutiko Batxilergo Bateratu Balioanitza eta Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea behin betiko iraungitzen diren arte jarraituko dutela bermatzen da. Ikasketa horien iraungitzea otsailaren 16ko 173/1998 Errege Dekretuan xedatuta dago.

Azaldutako guztiaren indarrez eta apirilaren 29ko 97/1997 Dekretuaren lehenengo azken xedapenean ematen den baimena erabiliz, honako hau

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

### N°-3459

ORDEN de 16 de julio de 1999, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se establece la regulación de la impartición del Bachillerato a distancia en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De acuerdo con el artículo 16 del Estatuto de Autonomía es competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco la enseñanza en toda su extensión, niveles y grados, modalidades y especialidades, sin perjuicio del artículo 27 de la Constitución y Leyes Orgánicas que lo desarrollen, de las facultades que atribuye al Estado el artículo 149.1.30 de la misma y de la alta inspección necesaria para su cumplimiento y garantía.

La nueva ordenación y la progresiva implantación de las enseñanzas previstas en la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo trae consigo la desaparición de las enseñanzas de Bachillerato Unificado Polivalente y Curso de Orientación Universitaria y obliga a proceder a la regulación y organización de la impartición del Bachillerato a distancia en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Es necesario establecer las condiciones de matriculación y promoción de curso del alumnado que curse el Bachillerato a distancia, la forma de impartir estas enseñanzas, las condiciones de trabajo del profesorado así como los órganos de gobierno de estos centros.

En la composición del Órgano Máximo de Representación de estos Institutos se ha tenido en cuenta la facultad que el artículo 32.3 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, confiere a la Administración para adaptar la composición del OMR de los centros de características singulares a la singularidad de los mismos.

Finalmente, en la Disposición Transitoria se garantiza la continuidad de los estudios de BUP y COU a distancia hasta la extinción definitiva de estos estudios contemplada en el Real Decreto 173/1998, de 16 de febrero.

Por todo lo expuesto y en uso de la autorización concedida en la Disposición Final Primera del Decreto 97/1997, de 29 de abril,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
APLIKATZEKO HELBURUA ETA ESPARRUA

*1. artikulua.–* Agindu honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoan Urrutiko Batxilergoa arautzea da.

II. KAPITULUA
MATRIKULA-BALDINTZAK ETA
IKASTURTEZ IGAROTZEKO BALDINTZAK

*2. artikulua.–* Urrutiko Batxilergoko Institutu batean matrikula egin ahal izateko, Batxilergoa egiteko bete behar diren eskakizun arruntez gain, honako baldintza hauetako batzuk ere bete beharko dira; baldintza hauek matrikula egiteko garaian agirien bidez egiaztatu beharko dira:

a) 18 urte izatea edo ikasturte horretan zehar betetzea. Horretarako, ikasturtea ekainaren 30ean bukatuko dela hartuko da kontuan.

b) Espetxean egotea.

c) Bertaratze-irakaskuntzako ikastetxeetara ezin joatea, hori eragozten duen gaitz edo ezintasun bat dela medio.

d) Bertaratze-irakaskuntzako ikastetxeetara ezin joatea, hori eragozten duen lan-jarduera egiten delako.

e) Aldi berean beste ikasketa ofizial batzuk egitea eta, horren ondorioz, bertaratze-irakaskuntzako ikastetxe batera erregulartasunez ezin joan izatea.

f) Kirol-jarduera bat egitea eta entrenamenduen ordutegiaren ondorioz, bertaratze-irakaskuntzako ikastetxe batera erregulartasunez ezin joan izatea. Kirol-jarduera hori dagokion federazioak egiaztatu beharko du.

*3. artikulua.–* Dagokion Hezkuntzako Lurralde ordezkariak Urrutiko Batxilergoan matrikulatzeko baimena emango die aurreko artikuluan aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten ikasleei, baldin eta egoera berezi batean badaude eta ikastetxe horietan matrikulatzea komeni bada.

Horrelakoetan, interesatuak dagokion Urrutiko Batxilergoko Institutuan matrikula-eskaera aurkeztu beharko du, adierazi duen egoera berezia egiaztatzen duten agiriekin batera. UBIak aurkeztutako agiriak eta ikastetxeko zuzendaritzak egindako txostena dagokion lurralde ordezkariari bidaliko dizkio. Lurralde ordezkariak eskatutako matrikulazioa baimendu edo ukatu egingo du.

*4. artikulua.–* Urrutiko Batxilergoko Institutuetan matrikula egiteko ez da beharrezkoa izango aurrez izena ematea. Matrikula egiteko epea irailaren 1etik abenduaren 31 arte izango da. Data horretatik aurrera, Urrutiko Batxilergoko Institutuek kasu berezietan bakarrik

DISPONGO:

CAPÍTULO I
OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

*Artículo 1.–* Es objeto de la presente Orden la regulación de la impartición del Bachillerato a distancia en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

CAPÍTULO II
CONDICIONES DE MATRÍCULA
Y PROMOCIÓN

*Artículo 2.–* Para poder matricularse en un Instituto de Bachillerato a Distancia, además de los requisitos generales exigidos para cursar Bachillerato, se deberán cumplir alguna de las siguientes condiciones, que deberán ser acreditadas documentalmente en el momento de efectuar la matrícula:

a) Tener 18 años o cumplirlos a lo largo del curso para el que se efectúa la matrícula. A estos efectos se considera que el curso finaliza el día 30 de junio.

b) Estar internado en un centro penitenciario.

c) No poder asistir a centros de enseñanza presencial por padecer alguna enfermedad o minusvalía que lo impida.

d) No poder asistir a centros de enseñanza presencial por desempeñar alguna actividad laboral que lo impida.

e) Realizar simultaneamente otro tipo de estudios oficiales que impidan acudir regularmente a un centro de Bachillerato de enseñanza presencial.

f) Realizar una actividad deportiva, justificada por la Federación correspondiente, cuyas horas de entrenamiento impidan acudir regularmente a un centro de enseñanza presencial.

*Artículo 3.–* El Delegado Territorial de Educación correspondiente podrá autorizar la matriculación en un Instituto de Bachillerato a Distancia de aquellos alumnos que no cumplan ninguna de las condiciones señaladas en el artículo anterior pero en los que concurra alguna circunstancia excepcional que aconseje su matriculación en estos centros.

En estos casos el interesado presentará en el Instituto de Bachillerato a Distancia correspondiente la solicitud de matrícula acompañada de la documentación acreditativa de las circunstancias excepcionales alegadas. El I.B.D. remitirá la documentación presentada junto con un informe elaborado por la Dirección del centro al Delegado Territorial correspondiente que autorizará o denegará la matriculación solicitada.

*Artículo 4.–* Para matricularse en un Instituto de Bachillerato a Distancia no se precisará preinscripción previa. El periodo de matrícula se extenderá desde el 1 de septiembre hasta el 31 de diciembre. A partir de esta fecha los Institutos de Bachillerato a Distancia podrán

onartuko dituzte ikasle gehiago eta, betiere, aurreko bi artikuluetan ezarritakoa betetzen baldin bada.

*5. artikulua.*– Urrutiko Batxilergoko Institutuetako ikasleek matrikula ikasturte osorako edo jakintzagai batzuetarako bakarrik (gehienez ere 12) egin dezakete. Kasu guztietan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1997ko ekainaren 27ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoan Batxilergoaren ezarpen orokorra arautzen duenak, 7. eta 8. artikuluetan jasotzen dituen lehenespen-arauak eta jakintzagaien arteko bateraezintasunak errespetatu beharko dira.

*6. artikulua.*– 1.– Urrutiko Batxilergoko Institutuetako ikasleek epe mugatua izango dute Batxilergoikasketak burutzeko. Hurrengo ikasturtera igarotzeko ez du jakintzagai-kopuru jakina gainditu beharko, baizik eta jakintzagaiak banan-banan gainditu ahal izango ditu eta gainditu dituenak ez ditu berriro gainditu beharko.

2.– Dena dela, Urrutiko Batxilergoko Institutu batean jakintzagai bat edo batzuk gainditu ondoren, ikasle bat bertaratze-irakaskuntzako ikastetxe batean sartuko balitz, ikastetxe-mota horri dagokion araudia aplikatuko litzaioke.

*7. artikulua.*– Batxilergoko ikasketak urrutikoa ez den beste hezkuntza-sistema batean hasi dituzten ikasleak Urrutiko Batxilergoko Institutu batean sartzen badira, ez dituzte gaindituta dituzten jakintzagaiak errepikatu beharko. Horretarako, ikaslearen ikasketa-espedientean agertzen den azken kalifikazioa hartuko da kontuan.

*8. artikulua.*– Bertaratze-irakaskuntzako ikastetxe batean Batxilergoan matrikulatutako pertsonaren bat ikasturtean zehar agindu honetako 2. artikuluko b), c), d), e) edo f) idatz-zatietan jasota dauden egoeran suertatuko balitz, bere ikasketa-espedientea Urrutiko Batxilergoko Institutu batera lekualdatzea eska lezake. Institutu horretan beste ikastetxean matrikulatuta zegoen jakintzagai guztietan matrikulatuta egongo da. Ikasle horiek ebaluatzerakoan, lehen ikastetxean lortutako kalifikazio partzialak —agiri bidez egiaztatuta egongo direnak— kontuan hartuko dira.

III. KAPITULUA
IRAKASKUNTZA EMATEA

*9. artikulua.*– Urrutiko Batxilergoko Institutuek Batxilergoko irakaskuntzak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehazten dituen modalitate eta hizkuntza-ereduetan emango dituzte.

*10. artikulua.*– Urrutiko Batxilergoko Institutuek baimena duten guztientzako jakintzagai guztiak eta modalitateko jakintzagai guztiak emango dituzte. Era

matricular nuevos alumnos únicamente en casos excepcionales y siempre y cuando se cumpla lo establecido en los dos artículos anteriores.

*Artículo 5.*– El alumnado de los Institutos de Bachillerato a Distancia podrá matricularse de un curso completo o por asignaturas sueltas, hasta un máximo de doce, respetando, en todo caso, las normas de prelación e incompatibilidad entre materias contenidas en los artículos 7 y 8 de la Orden de 27 de junio de 1997, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, que regula la implantación generalizada del Bachillerato en los centros docentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 6.*– 1.– El alumnado de los Institutos de Bachillerato a Distancia no tendrá un plazo limitado para terminar los estudios de Bachillerato. Tampoco precisará superar un número mínimo de asignaturas para promocionar al curso siguiente, sino que podrá aprobar las asignaturas de una en una, sin tener que repetir ninguna de las aprobadas.

2.– No obstante, a quien, habiendo aprobado alguna o algunas materias en cualquiera de los Institutos de Bachillerato a Distancia, se incorporase a algún centro de enseñanza presencial, se le aplicará la normativa correspondiente a este tipo de centros.

*Artículo 7.*– Quienes se incorporen a un Instituto de Bachillerato a Distancia habiendo comenzado sus estudios de Bachillerato en cualquier otro sistema docente no tendrán que repetir las asignaturas que tuvieran aprobadas. A estos efectos se tendrá en cuenta la última calificación que figure en el expediente académico del alumno.

*Artículo 8.*– Si a alguna persona matriculada de Bachillerato en algún centro de enseñanza presencial le sobreviniera a lo largo del curso alguna de las circunstancias recogidas en los apartados b), c), d) e) o f) del artículo 2 de la presente Orden, podrá solicitar el traslado de su expediente a un Instituto de Bachillerato a Distancia, quedando matriculado en éste de todas aquellas materias en las que estuviera matriculado en el otro centro. En la evaluación de estos alumnos se tendrán en cuenta las calificaciones parciales que hubieran obtenido en el primer centro en el que estuvieron matriculados, justificadas documentalmente.

CAPÍTULO III
IMPARTICIÓN DE LA ENSEÑANZA

*Artículo 9.*– Los Institutos de Bachillerato a Distancia impartirán las enseñanzas de Bachillerato en las modalidades y modelos lingüísticos que determine el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

*Artículo 10.*– Los Institutos de Bachillerato a Distancia impartirán todas las asignaturas comunes y todas las asignaturas de modalidad de las modalidades que

berean, dituzten irakasleak eta haien ordutegia kontuan hartuz, eman ditzaketen hautazko jakintzagaiak ere emango dituzte. Dena dela, lehen mailan modalitate bakoitzeko gutxienez hautazko jakintzagai bat eman beharko dute kurtso bakoitzean.

*11. artikulua.–* Irakaskuntza talde-tutoretzaren eta banakako tutoretzaren bidez emango da.

*12. artikulua.–* Talde-tutoretzak 60 minutuko klaseak izango dira eta bertan irakasleek programako gai bakoitzaren oinarriak azalduko dituzte, gai horiek ikasteko egin beharreko urratsak adieraziko dituzte, ariketak egingo dituzte, ikasleen zalantza orokorrak argituko dituzte eta, oro har, ikasleek ikasgaia ongi beregana dezaten egoki deritzen jarduera guztiak egingo dituzte, klaustroak ezarritako irizpideei jarraituz.

*13. artikulua.–* Kokaleku duten eraikina osorik erabiltzen duten Urrutiko Batxilergoko Institutuek ikasle-talde bakoitzari astean talde-tutoretzako ordubete emango diete goizez eta beste ordubete arratsaldez, ikastetxean irakasten diren jakintzagai guztiei buruz. Goizeko orduaren edukia arratsaldekoaren antzekoa izango da, ikasleak saio batera edo bestera joatea erabaki ahal izan dezan, bere egoera pertsonalaren arabera. Eraikina beste ikastetxeren batekin erdibana duten Urrutiko Batxilergoko Institutuek goizeko talde-tutoretzak kendu ahal izango dituzte, beste ikastetxearen jarduerarekin bateratu ezin badira.

*14. artikulua.–* Ikasleak talde-tutoretzara joatea borondatezkoa da.

*15. artikulua.–* Banakako tutoretzetan, irakasleek ikasleek jakintzagai horri buruz dituzten zalantzak eta banakako kontsultak erantzun behar dituzte. Kontsultak ikastetxean bertaratuz egin ahal izango dira edo, bestela, telefonoz, faxez, postaz edo bestelako sistema baten bidez ere egin ahal izango dira.

*16. artikulua.–* Ikasleei talde-tutoretzara joatea errazteko eta, halaber, banakako kontsultak modu eraginkorrean egiteko aukera izan dezaten, bertaratze-jardueren ordutegia eratzerakoan maila bakoitzekoak ahalik eta aste gutxienetan taldekatzen ahalegindu behar da. Era berean, hizkuntza-eredu bakoitzeko irakasle guztiak aldi berean Institutuan egongo dira, talde-tutoretzak nahiz banakako tutoretzak emanez.

*17. artikulua.–* Ikasturtean zehar, gutxienez bi ebaluazio-aldi arrunt antolatuko dira; horrez gain, 1997ko ekainaren 27ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Batxilergoaren ezarpena arautzen duenak, 24.1 artikuluan aipatzen duen proba osagarriari dagokion ebaluazio-aldia ere egingo da. Era berean,

tuvieran autorizadas. Asimismo impartirán las materias optativas que sea posible teniendo en cuenta el profesorado del que dispongan y su disponibilidad horaria. En cualquier caso tendrán que impartir, al menos, una asignatura optativa por cada modalidad en cada uno de los dos cursos.

*Artículo 11.–* La enseñanza se impartirá por medio de tutorías colectivas y tutorías individuales.

*Artículo 12.–* Las tutorías colectivas serán sesiones de clase de 60 minutos de duración en las que el profesorado señalará los puntos fundamentales de cada tema del programa, indicará las pautas para su estudio, resolverá ejercicios, aclarará dudas generales planteadas por el alumnado y realizará, en general, cuantas actividades considere convenientes para la asimilación de la materia, de acuerdo con los criterios establecidos por el Claustro.

*Artículo 13.–* Los Institutos de Bachillerato a Distancia que utilicen de modo exclusivo el edificio que ocupan impartirán a cada grupo de alumnos una hora semanal por la mañana y una hora semanal por la tarde de tutorías colectivas de todas y cada una de las materias que imparta el centro. El contenido de la hora de la mañana será similar al de la tarde de modo que el alumno pueda elegir asistir a una u otra sesión, de acuerdo con sus circunstancias personales. Los Institutos de Bachillerato a Distancia que compartan el edificio que ocupan con algún otro centro, podrán suprimir las tutorías colectivas de las mañanas cuando no fuera posible compatibilizarlas con las actividades del otro centro.

*Artículo 14.–* La asistencia de los alumnos a las tutorías colectivas será voluntaria.

*Artículo 15.–* Las tutorías individuales son periodos de tiempo en los que el profesorado está a disposición del alumnado para atender consultas individuales relacionadas con la asignatura. Las consultas se podrán realizar personándose en el centro o bien se podrán formular por teléfono, fax, correo o cualquier otro sistema que se pudiera establecer.

*Artículo 16.–* Para facilitar al alumnado la asistencia a las tutorías colectivas y, a la vez, permitirle realizar las consultas individuales de una manera eficaz, al elaborar el horario de actividades presenciales se procurará agrupar las de cada curso en el menor número posible de jornadas semanales. Asimismo todo el profesorado del mismo modelo lingüístico de enseñanza estará presente en el instituto de manera simultánea, bien impartiendo las tutorías colectivas o impartiendo las individuales.

*Artículo 17.–* Durante el curso se organizarán al menos dos periodos de evaluación ordinaria además del destinado a la posible realización de la prueba adicional a la que se refiere el artículo 24.1 de la Orden de 27 de junio de 1997, que regula la implantación del Bachillerato en los centros docentes de la Comunidad

agindu horren 24.4 artikuluan arautzen den aparteko deialdia ere antolatuko da.

*18. artikulua.–* Ebaluazioko proba guztiak bertaratuta eta idatziz egin beharko dira. Proba horietako batera aurkezteko, ikasleak derrigorrez NAN, pasaportea edo baliokidea den beste agiriren bat erakutsi beharko du. Azterketara aurkezten diren pertsonen identitatearekin loturiko irregulartasunak badaude, diziplina-espedientea irekiko zaie eta dagokion zigorra ezarriko zaie, apirilaren 19ko 160/1994 Dekretuan, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoan, xedaturikoaren arabera eta ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera Araudiari jarraiki.

*19. artikulua.–* Eskola-ordutegiko datak, bai eta proba osagarria eta aparteko deialdiko probak egiten diren datak ere, urtero Ikastetxeen zuzendariaren zirkularrak xedatzen duenari jarraiki ezarriko dira.

IV. KAPITULUA
URRUTIKO BATXILERGOKO INSTITUTUETAKO IRAKASLEAK

*20. artikulua.–* Urrutiko Batxilergoko Institutuen Klaustroa Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko irakasleek osatuko dute. Bakanterik balego, lekualdatze-lehiaketaren bidez beteko litzateke.

*21. artikulua.–* Klaustroan jakintzagai bat emateko gaitasuna duen irakaslerik egongo ez balitz, dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak jakintzagai hori beste Batxilergoko ikastetxe bateko irakasleren batek emango duela zehaztu dezake. Irakasle horrek asteko orduen zati bat zeregin horretan emango luke.

*22. artikulua.–* 1.– Urrutiko Batxilergoko Institutuetako irakasleen asteko ordutegia funtzionario publiko guztientzat ezarriko da orokorrean, abuztuaren 2ko 30/1984 Legeak, funtzio publikoa berritzeko neurriei buruzkoak, xedatzen duenarekin bat etorriz.

2.– Lanaldi horretatik, astean 30 ordu zuzenean ikastetxeari dedikatuko zaizkio. Asteko gainerako orduak ez zaizkio zuzenean ikastetxeari dedikatuko, baizik eta irakas-jarduerak prestatzera, azterketak prestatu eta zuzentzera, irakaslearen hobekuntza pertsonalera eta irakaskuntzarekin lotutako beste eginkizun batzuetara zuzenduko dira.

3.– Astean zuzenean ikastetxeari dedikatuko zaizkion 30 ordu horietatik, 25 banakako eta talde-tutoretzak ematera zuzenduko dira. Geratzen diren beste 5 orduak hilabetero zenbatuko dira eta ekintza hauek egitera zuzenduko dira: didaktika-departamentuetako jarduerak, ikastetxeko zuzendaritza-kargu bakoitzari dagozkion zereginak, taldeko organoen bilerak, ebaluazio-

Autónoma del País Vasco. Asimismo se organizará la convocatoria extraordinaria regulada en el artículo 24.4 de la mencionada Orden.

*Artículo 18.–* Todas las pruebas de evaluación serán presenciales y escritas. Para presentarse a cualquiera de ellas será condición imprescindible que el/la alumno/a se identifique por medio de su DNI, pasaporte o documento similar. Cualquier irregularidad relacionada con la identidad de las personas presentadas a examen dará lugar a la incoación del correspondiente expediente disciplinario y a la imposición de la sanción que corresponda, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 160/1994, de 19 de abril, sobre derechos y deberes del alumnado y con lo que establezca el Reglamento de Organización y Funcionamiento del centro.

*Artículo 19.–* Las fechas del calendario lectivo así como aquellas en las que se celebren la prueba adicional y las pruebas de la convocatoria extraordinaria se ajustarán a lo que se disponga cada año en la correspondiente Circular del Director de Centros Escolares.

CAPÍTULO IV
PROFESORADO DE LOS INSTITUTOS DE BACHILLERATO A DISTANCIA

*Artículo 20.–* El Claustro de los Institutos de Bachillerato a Distancia estará integrado por profesores/as del Cuerpo de Profesores de Enseñanza Secundaria. Las vacantes existentes se cubrirán por medio del correspondiente Concurso de Traslados.

*Artículo 21.–* Cuando no existan en el Claustro profesores/as competentes para impartir una determinada asignatura la Delegación Territorial de Educación correspondiente podrá determinar que el alumnado de esa materia sea atendido por algún profesor/a de algún otro centro de Bachillerato, parte de cuyo horario semanal se dedicará a esta tarea.

*Artículo 22.–* 1.– El horario semanal del profesorado de los Institutos de Bachillerato a Distancia será el establecido con carácter general para todos los funcionarios públicos, de acuerdo con lo establecido en la Ley 30/1984, de 2 de agosto, de medidas para la reforma de la función pública.

2.– De dicha jornada 30 horas semanales serán de dedicación directa al centro. El resto del horario semanal, contemplado como de dedicación no directa al centro, se destinará a la preparación de actividades docentes, preparación y corrección de exámenes, perfeccionamiento personal del profesor y otros temas ligados a la función docente.

3.– De las 30 horas semanales de dedicación directa al centro 25 horas se dedicarán a la atención de las tutorias individuales y colectivas. Las 5 horas semanales restantes se contabilizarán mensualmente y se destinarán a actividades de los Departamentos Didácticos, desempeño de las tareas propias de cada uno de los cargos directivos del centro, reuniones de Órganos Cole-

batzordeak, ikastetxearen plangintza eta antolamenduko tresnen eraketa, beste irakasleekin koordinazio-bilerak eta bestelako jarduera osagarriak.

4.– Banakako eta talde-tutoretzara astean zuzentzen diren 25 orduetatik, gehienez ere 12 ordu erabiliko dira talde-tutoretzak emateko. 25 ordu horiek hizkuntza-eredu berean irakasten duten klaustrokide guztiek aldi berean emango dituzte. Talde-tutoretzak ematen ez dituzten irakasleak beraien bulegoetan egongo dira ikasleei banakako tutoretza eskaintzeko.

V. KAPITULUA
URRUTIKO BATXILERGO INSTITUTUETAKO AGINTE-BATZORDEAK

*23. artikulua.–* Urrutiko Batxilergoko Institutuetan honako aginte-batzordeak egongo dira:

a) Taldekoak:

– Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorena (OOG).

– Zuzendaritza-taldea.
– Irakasleen Klaustroa.

b) Kide bakarrekoak:

– Zuzendaria.
– Ikasketa-burua
– Idazkaria.

*24. artikulua.–* 1.– Urrutiko Batxilergoko Institutuen OOGaren osaera honakoa izango da:

– Zuzendaria (lehendakaria izango da).
– Ikasketa-burua.
– Bi irakasle.
– Ikasleen lau ordezkari.
– Irakasle ez diren langileen ordezkari bat.
– Ikastetxeko idazkaria, OOGko idazkari-lanak egingo dituena; hitza izango du, baina botorik ez.

2.– OOGko kideen agintearen iraupena, kideak hautatzeko prozesua, hautatu ondoren OOG eratzea eta sortzen diren bakanteak betetzea Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko guztientzat ezarritakoaren araberakoak izango dira.

*25. artikulua.–* Urrutiko Batxilergoko Institutuetako kide bakarreko aginte-organoak hautatzeko prozesua eta organo horiek agintean emango duten denbora Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko guztientzat ezarritakoaren araberakoak izango dira.

*26. artikulua.–* Ikastetxeko zuzendaritza-kargu bat duten irakasleei, kargu horri dagozkion zereginak betetzeagatik ez zaizkie irakasle gisa dituzten betebeharrak murriztuko. Dena dela, bakoitzari dagozkion banakako eta talde-tutoretzak emateak lehentasuna izango dute beti.

giados, Juntas de Evaluación, elaboración de los instrumentos de planificación y ordenación del centro, reuniones de coordinación con otros profesores y otras actividades complementarias.

4.– De las 25 horas semanales dedicadas a las tutorías individuales y colectivas 12 horas, como máximo, se dedicarán a la impartición de las tutorías colectivas. Estas 25 horas se realizarán de manera simultánea por todos los miembros del Claustro que impartan clase en el mismo modelo lingüístico. El profesorado que no se encuentre impartiendo tutorías colectivas, permanecerá en su despacho para atender al alumnado en las tutorías individuales.

CAPÍTULO V
ÓRGANOS DE GOBIERNO DE LOS INSTITUTOS DE BACHILLERATO A DISTANCIA

*Artículo 23.–* En los Institutos de Bachillerato a Distancia existirán los siguientes órganos de gobierno:

a) Colegiados:

– El Órgano Máximo de Representación del Centro (OMR).
– El Equipo Directivo.
– El Claustro de Profesores.

b) Unipersonales:

– El Director/a.
– El Jefe/a de Estudios.
– El Secretario/a.

*Artículo 24.–* 1.– La composición del OMR de los Institutos de Bachillerato a Distancia será la siguiente:

– El Director/a, que será su Presidente/a.
– El Jefe/a de Estudios.
– Dos profesores/as.
– Cuatro representantes del alumnado.
– Un representante del personal no docente.
– El Secretario/a del centro, que actuará como Secretario/a del OMR , con voz pero sin voto.

2.– La duración del mandato de los miembros del OMR, el proceso de elección de los mismos, la constitución del OMR una vez elegido y la cobertura de las vacantes que se produzcan, se ajustarán a lo dispuesto para todos los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 25.–* La duración del mandato y el proceso de elección de los órganos unipersonales de gobierno de los Institutos de Bachillerato a Distancia se ajustarán a lo dispuesto para todos los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 26.–* El desempeño de las tareas propias de cada uno de los cargos directivos del centro no podrá suponer una reducción de las obligaciones docentes de esos profesores/as. En cualquier caso será siempre prioritaria la atención de las tutorías individuales y colectivas que a cada uno de ellos les corresponda.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Urrutiko Batxilergoko Institutuek bere gain hartuko dute beren Lurralde Historikoko espetxeetan dauden ikasleei arreta ematea. Ikasle horiei arreta emateko, araubideak ezartzen duen moduari jarraituko zaio.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehena.–* 1999-2000 ikasturtean zehar, Urrutiko Batxilergoko Institutuek Urrutiko BBBko 3. maila eta UBI emango diete aurreko ikasturtean irakaskuntza-mota horietan matrikulatuta zeuden ikasleei. BBBko 3. mailan matrikula egin ahal izateko, derrigorrez bete beharreko baldintza izango da ikasleak BBBko 1. eta 2. mailako 5 jakintzagai baino gehiago gainditu gabe ez izatea.

*Bigarrena.–* 2000-2001 ikasturtean zehar, Urrutiko Batxilergoko Institutuek Urrutiko UBIko irakaskuntza emango diete aurreko ikasturtean irakaskuntza-mota horietan matrikulatuta zeuden ikasleei. UBIn matrikula egin ahal izateko, derrigorrez bete beharreko baldintza izango da ikasleak BBBko 1., 2. eta 3. mailako 2 jakintzagai baino gehiago gainditu gabe ez izatea.

*Hirugarrena.–* Urrutiko BBBko 3. mailan edo UBIn matrikulatuta egon diren ikasleak 1999-2000, 2000-2001 eta 2001-2002 ikasturteetan Urrutiko Batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikula egiten badute, ez dituzte BBBko 3. mailan eta UBIn gainditu dituzten jakintzagaiak errepikatu beharko. Horretarako, agindu honen eranskinean jasotzen diren baliokidetzak aplikatuko dira.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.–* Ikastetxeetako zuzendariari eta Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari baimena ematen zaie agindu hau interpretatu, aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak egiteko.

*Bigarrena.–* Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1999ko uztailaren 16a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Los Institutos de Bachillerato a Distancia se ocuparán de la atención a los alumnos recluidos en los centros penitenciarios de su correspondiente Territorio Histórico. La atención a este alumnado se llevará a cabo en la forma que reglamentariamente se determine.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.–* Durante el curso 1999-2000 los Institutos de Bachillerato a Distancia impartirán enseñanzas de 3.º de BUP y COU a distancia a los alumnos/as que ya estuvieran matriculados en el curso anterior en este tipo de enseñanzas. Para poder matricularse en 3.º de B.U.P. será condición imprescindible que el alumno/a no tenga más de 5 asignaturas pendientes de 1.º y/o 2.º. de BUP.

*Segunda.–* Durante el curso 2000-2001 los Institutos de Bachillerato a Distancia impartirán enseñanzas de COU a distancia a los alumnos/as que ya estuvieran matriculados en el curso anterior en este tipo de enseñanzas. Para poder matricularse en COU será condición imprescindible que el alumno/a no tenga más de 2 asignaturas pendientes de 1.º, 2.º y/o 3.º de BUP.

*Tercera.–* Los alumnos/as que habiendo estado matriculados en 3.º de BUP o C.O.U. a distancia se matriculen durante los cursos 1999-2000, 2000-2001 y 2001-2002 en 1.º o 2.º de Bachillerato a distancia no tendrán que repetir las asignaturas que tuvieran aprobadas en 3.º de BUP y COU A estos efectos se aplicarán las equivalencias que figuran en el Anexo de esta Orden.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se autoriza a los Directores de Centros Escolares e Innovación Educativa para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para la interpretación, aplicación y desarrollo de la presente Orden.

*Segunda.–* La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de julio de 1999.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

ERANSKINA.– HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRAK AIPATZEN DUEN BALIOKIDETZA-TAULA.

| BBBko 3. MAILAKO JAKINTZAGAIAK | BATXILERGOKO JAKINTZAGAIAK |
|---|---|
| Atzerriko hizkuntza | Atzerriko hizkuntza (1. maila) |
| Euskal hizkuntza eta literatura | Euskal hizkuntza eta literatura (1. maila) |
| Geografia eta historia | Historia (2. maila) |
| Erlijio-heziketa edo etika | Erlijioa edo ordezkoa |
| Filosofia | Filosofia (1. maila) |
| Gorputz eta kirol-hezkuntza | Gorputz-hezkuntza |
| Latina | Latina I |
| Greziera | Greziera |
| Literatura | Gaztelania eta literatura (1. maila) |
| Matematika | Matematika I edo Gizarte-zientziei aplikatutako matematika I (matrikulatzen den modalitatearen arabera) |
| Fisika eta kimika | Fisika eta kimika |
| Natur zientziak | Biologia eta geologia |

| UBIko JAKINTZAGAIAK | BATXILERGOKO JAKINTZAGAIAK |
|---|---|
| Gaztelania | Gaztelania eta literatura (2. maila) |
| Atzerriko hizkuntza | Atzerriko hizkuntza (2. maila) |
| Filosofia | Filosofiaren historia |
| Euskal hizkuntza eta literatura | Euskara eta literatura (2. maila) |
| Matematika I | Matematika II |
| Fisika | Fisika |
| Kimika | Kimika |
| Biologia | Biologia |
| Geologia | Geologia |
| Marrazketa teknikoa | Marrazketa teknikoa |
| Matematika II | Gizarte-zientziei aplikatutako matematika II |
| Historia garaikidea | Historia garaikidea |
| Literatura | Literatura garaikidea |
| Latina | Latina II |
| Greziera | Greziera |
| Artearen historia | Artearen historia |

*ANEXO.– TABLA DE EQUIVALENCIAS A LAS QUE SE REFIERE LA DISPOSICIÓN TRANSITORIA TERCERA.*

| MATERIAS DE 3.º DE BUP | MATERIAS DE BACHILLERATO |
|---|---|
| Lengua Extranjera | Lengua Extranjera de 1.º |
| Lengua y Literatura Vasca | Euskera y Literatura de 1.º |
| Geografía e Historia | Historia de 2.º |
| Formación Religiosa o Ética | Religión o Alternativa |
| Filosofía | Filosofía de 1.º |
| Educación Física y Deportiva | Educación Física |
| Latín | Latín I |
| Griego | Griego |
| Literatura | Lengua Castellana y Literatura de 1.º |
| Matemáticas | Matemáticas I o Matemáticas CC. Sociales I (dependiendo de la modalidad en la que se matricule) |
| Física y Química | Física y Química |
| Ciencias Naturales | Biología y Geología |

| MATERIAS DE COU | MATERIAS DE BACHILLERATO |
|---|---|
| Lengua Española | Lengua Castellana y Literatura de 2.º |
| Lengua Extranjera | Lengua Extranjera de 2.º |
| Filosofía | Historia de la Filosofía |
| Lengua y Literatura Vasca | Euskera y Literatura de 2.º |
| Matemáticas I | Matemáticas II |
| Física | Física |
| Química | Química |
| Biología | Biología |
| Geología | Geología |
| Dibujo Técnico | Dibujo Técnico |
| Matemáticas II | Matemáticas CC. Sociales II |
| Historia del Mundo Contemporáneo | Historia del Mundo Contemporáneo |
| Literatura | Literatura contemporánea |
| Latín | Latín II |
| Griego | Griego |
| Historia del Arte | Historia del Arte |